

## **FITXA METODOLOGIKOA.**

### **LAN MERKATUAREN ERROLDA (LME) - ESKAINTZA (050404)**

#### **Identifikazioa**

##### **Eragiketaren izena.**

Lan merkatauren errolda (LME) - Eskaintza

##### **Eragiketaren kodea.**

050404 (10/2023 LEGEA, azaroaren 9koa, 2023-2026 Euskal Estatistika Planari buruzkoa.).

##### **Erakunde arduraduna.**

Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila.

##### **Beste erakunde partaide batzuk.**

EUSTAT. Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística.

##### **Gai-arloa.**

Lan Merkatua.

##### **Maiztasuna.**

Lau urtekoa (bisurteetan izan ezik).

##### **Eragiketa-mota.**

Laginketazko inkesta.

##### **Metodologia datuen jatorriari jarraiki.**

Lehen mailako datuak zuzenean biltzea laginketa bidez.

#### **Helburuak**

Oro har, LME-Eskaintzak bi helburu nagusi planteatzen ditu:

Lehenik eta behin, eta lehentasunez, Lurralde Historikoa baino txikiagoak diren lurralde-eremuetan lan-merkatua aztertzeke erreferentzia izatea, enplegu-eskualdeak edo -arroak direla ulertuta.

Bigarrenik, eta modu osagarrian, lan-merkatuko agregatu handiei dagozkien datuez gain, lurralde-eremu desberdinetako egitura sektorial eta sozio-profesionalera hurbilketa

bat eskaintzea, jarduerari, okupazioari edo langabeziari (BAI edo BJA) buruzko eragiketetan ohikoak direnak baino estatistika-errore maila txikiagoetan oinarrituta.

## **Aztertzeke aldagai nagusiak**

- Jarduerarekiko harreman-aldagaiak
- Biztanleria landunari buruzko aldagaiak
- Langabeei eta enplegu-eskatzaileei buruzko aldagaiak
- Biztanleria ez-aktiboari buruzko aldagaiak
- Atzerriko hizkuntzen ezagutza-maila.
- Beste okupazio-aldagai batzuk
- Tasak eta lotutako beste adierazle batzuk
- Euskaditik irten den biztanleria aktiboa

## **Eremua**

### **Populazio-eremua:**

Urte osoan edo gehiena ohiko bizileku gisa erabiltzen diren familia-etxebizitzetan bizi diren pertsonen multzoa. Eragiketaren erdialdean, lortu beharreko datu espezifikoek bilketa 16-64 urteko biztanleria aktibora eta potentzialki aktibora mugatu ohi da.

### **Lurralde-eremua:**

Lurralde historikoa eta eskualdea.

### **Denbora-eremua:**

Datuak lau urtean behin jasotzen dira, eta eragiketa egiten den urteetako azken hiruhilekoan jasotzen da informazioa.

## **Galdetegiak**

[Galdetegiak](#)

## **Zabalkundea**

[Internet: Zabalkunde orokorra.Organo Estatistikoa.](#)

[Internet: Taula estatistikoak Eustat.](#)

